

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Zuzentaraua: 444/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko maiatzaren 28koa, estatu kideek egiten dituzten pasaporteen eta bidaia-agirien segurtasun-neurrien eta datu biometrikoen arauetarako buruzko Kontseiluaren 2252/2004 (EE) Erregelamendua aldatzekoa.

---

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hau da : «REGLAMENTO (CE) Nº 444/2009 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 28 de mayo de 2009, por el que se modifica el Reglamento (CE) nº 2252/2004 del Consejo sobre normas para las medidas de seguridad y datos biométricos en los pasaportes y documentos de viaje expedidos por los Estados miembros» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 142/1, 2009/06/06koa*)»

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**444/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,**

**2009ko maiatzaren 28koa,**

**estatu kideek egiten dituzten pasaporteen eta bidaia-agirien segurtasun-neurrien eta datu biometrikoen araei buruzko Kontseiluaren 2252/2004 (EE) Erregelamendua aldatzekoa.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, bereziki, Tratatuaren 62. artikulua 2. paragrafoa a) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [1],

Eta alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseilu Europarrak, 2003ko ekainaren 19an eta 20an Salonikan egindako bileran, berretsi egin zuen Europar Batasunean beharrezkoa dela ikuspegi koherentea izatea hirugarren herrialdeetako herritarren agirietan, Europar Batasuneko herritarren pasaporteetan eta informazio-sistemetan (VIS eta SIS II), identifikatzaileei edo datu biometrikoari dagokienez.

(2) Horrekin lotuta, 2004ko abenduaren 13an, Kontseiluak 2252/2004/EE Erregelamendua [2] eman zuen, estatu kideek egiten dituzten pasaporteen eta bidaia-agirien segurtasun-neurrien eta datu biometrikoen araei buruzkoa. Aurrerapauso handia izan zen erregelamendu hori, pasaporte eta bidaia-agiri seguruagoak edukitzeko elementu berriak sortu eta pasaportearen edo bidaia-agiriaren eta haren titularraren arteko lotura fidagarriagoa egin baitzuen; horiek horrela, pasaporteak eta bidaia-agiriak iruzur eginez erabiltzeko bideak zaildu eta prebenitu dira.

(3) 2252/2004/EE Erregelamendua hatz-markak emateko betebeharrak ezarri zuen. Hatz-marka horiek pasaportearen edo bidaia-agirian biltzen dira, kontaktu gabeko txip batean. Nolanahi ere, proba batzuk egin dira eta agerian utzi dute ezinbestekoa dela zenbait salbuespen ezartzea. Estatu kide batzuetan abian jarritako proiektu pilotuek argi erakutsi dute 6 urte baino gutxiago dituzten pertsonen hatz-marken kalitatea ez dela nahikoa, haien nortasuna modu unibokoz egiaztatzeko. Halaber, adin horretan hatz-markak dezente aldatzen dira, eta, hortaz, zaila da horiek egiaztatzea pasaportearen edo bidaia-agiriaren indarrean dagoen epealdi osoan.

(4) Egokia da hatz-markak emateko betebeharrak orokorraren salbuespenak harmonizatzea, guztiok segurtasun-arau komunak izan ditzagun eta mugetan izaten diren kontrolak

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

egungoak baino errazagoak izan daitezten. Arrazoi juridikoak zein segurtasunezkoak direla eta, ez da estatuetako legegileen esku utziko hatz-markak emateko betebeharraren salbuespenak ezartzea, hau da, estatu kideek pasaporteak edo bidaia-agiriak egiteko betebeharraren salbuespenak erabakitzea.

(5) 2252/2004/EE Erregelamenduak arautzen du pasaporteak eta bidaia-agiriak biltzen diren tokian jaso eta gorde behar direla datu biometrikoak. Hori hala izango da, nahiz eta datu horiek beste erabileraren bat izan edo beste tokiren batean jaso, estatu kide bakoitzaren legediari jarraituz. 2252/2004/EE Erregelamenduak ez du oinarri juridikorik eman informazio horiek estatu kideetan biltzeko datu-baseak ezar daitezten edo datu-baseak dituztenak hala jarrai dezaten, estatu kide bakoitzaren legediaren mende baitaude soilik alderdi horiek.

(6) Horrez gain, segurtasun-neurri osagarriak izateko eta haurrei babes handiagoa emateko, “persona bat, pasaporte bat” printzipioa ezarri behar da, Nazioarteko Abiazio Zibileko Erakundeak gomendatzen duenaren ildotik. Izan ere, printzipio horrek ziurtatzen du pasaportea eta bertan jasotzen diren datu biometrikoak pasaportearen titularrarenak direla bakar-bakarrik. Askoz ere seguruagoa da nork bere pasaportea edukitzea.

(7) Kontuan izanik, batetik, estatu kideek adingabe bakoitzari bere pasaportea egiteko betebeharra izango dutela, eta, bestetik, hurrek estatu kideetako kanpo-mugak zeharkatzeari buruzko legediak desberdinak izan daitezkeela estatu kideetan, Batzordeak neurriak ezartzeko premia aztertu behar du, hain zuzen, ziurtatzeko ikuspegi komuna izango dutela, estatu kideetako kanpo-mugak zeharkatzen dituzten haurren babesari buruzko arauei dagokienez.

(8) Estatu kideek ezin dituztenez Erregelamendu honen helburuak behar bezala bete, eta, hortaz, Erkidegoan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan zehaztutako subsidiariorotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, helburu horiek lortzeko neurriak hartzera mugatzen da erabaki hau.

(9) Danimarkaren jarrera dela-eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuari erantsitako Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraituz, Danimarkak ez du parte hartzen erregelamendu hau erabakitzeko orduan, eta, gainera, erregelamenduak ez du lotzen, eta ezin zaio aplikatu. Kontuan izanda Erregelamendu honek Schengengo altxorra garatzen duela, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren hirugarren zatia IV. tituluari jarraituz, Danimarkak, aipatu Protokoloko 5. artikulua baitan, sei hilabeteko epea du, erabakia hartzen den egunetik zenbatzen hasita, erabakia barne-leggedian jasoko duen ala ez erabakitzeko.

(10) Erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, baina Erresuma Batuak ez du xedapen horietan parte hartzen, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak Schengengo altxorreko hainbat xedapenetan parte hartzeko egindako eskaerari buruz Kontseiluak 2000ko maiatzaren 29an hartutako 2000/365/EE

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Erabakiak xedatutakoari jarraituz [3]. Hori guztia dela-eta, Erresuma Batuak ez du erabaki honetan parte hartzen, eta ez du erabakia zertan aplikatu.

(11) Erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, baina Irlandak ez du xedapen horietan parte hartzen, 2002ko otsailaren 28an Irlandak Schengengo altxorreko hainbat xedapenetan parte hartzeko egindako eskaerari buruzko Kontseiluaren 2002/192/EE Erabakiak xedatutakoari jarraiki [4]. Hori guztia dela-eta, Irlandak ez du erabaki honetan parte hartzen, eta ez du erabakia zertan aplikatu.

(12) Islandiari eta Norvegiari dagokienez, Erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, Europar Batasuneko Kontseiluak, Islandiako Errepublikak eta Norvegiako Erresumak sinatutako Akordioari jarraituz, hain zuzen, bi estatu horiek Schengengo altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako akordioa [5]. Xedapen horiek hemen jasota daude: Kontseiluak 1999ko maiatzaren 17an emandako 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluan A idatz-zatian [6].

(13) Suitzaren kasuan, Erregelamendu honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, Suitzar Konfederakundeak Schengengo altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren eta Suitzar Konfederakundearen artean egindako Akordioari jarraituz [7]. 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluko A idatz-zatian aipatutako arloan sartzen dira, Kontseiluaren 2008/146/EE [8] eta 2008/146/JAI [9] Erabakiekin lotuta.

(14) Liechtensteinen kasuan, Erregelamendu honek Schengengo altxorraren xedapenak garatzen ditu, Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren, Suitzar Konfederakundearen eta Liechtensteingo Printzerriaren arteko Protokoloari jarraituz, Suitzar Konfederakundeak Schengengo altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren eta Suitzar Konfederakundearen artean egindako Akordiora Liechtensteingo Printzerria atxikitzeari buruzkoa. Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluko A idatz-zatiaren arloan sartzen dira, Kontseiluaren 2008/261/EE Erabakiaren 3. artikuluekin lotuta [10].

(15) Egokia da, horrenbestez, 2252/2004/EE Erregelamendua aldatzea.

**HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:**

1. artikulua

2252/2004/EE Erregelamendua jarraian adierazten den moduan aldatuko da:

1) 1. artikuluko 1. eta 2. paragrafoen lekuan honako testua jarriko da:

"1. Estatu kideek egiten dituzten pasaporteek eta bidaia-agiriekin eranskinean jasotako gutxieneko segurtasun-arauak bete behar dituzte.

Pertsona bakarrarentzat izango dira.

444/2009 (EE) erregelamendua (EBren Aldizkari Ofiziala, L 142, 2009/06/06koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Batzordeak txosten bat aurkeztuko du, estatu kideetako kanpo-mugak bakarrik edo beste norbaitekin gurutzatzen dituzten haurrentzako baldintzei buruz. Hain zuzen, 2012ko ekainaren 26a baino lehen aurkeztuko du txostena, eta, egoki irudituz gero, ekimen egokiak proposatuko ditu, estatu kideetako kanpo-mugak gurutzatzen dituzten haurrak babesteko arauari buruzko ikuspegi komuna izateko.

2. Pasaporteak eta bidaia-agiriekin segurtasun-maila handiko biltegiagailu bat izango dute, aurpegiaren irudia eta guzti. Estatu kideek bi hatz-marka ere jasoko dituzte, eredu elkarreragingarrien leku lau batean zanpatuta hartutako hatz-markak. Datuak babestu egin behar dira eta biltegiagailuak nahikoa edukiera izan behar du, eta, halaber, datuak zuzenak, benetakoak eta konfidentzialak direla bermatzeko aukera eman behar du.

**2bis.** Hatz-markak emateko betebeharretik salbuetsita daude:

a) 12 urte baino gutxiago dituzten pertsonak.

12 urteko adin-muga behin-behinekoa da. 5 bis artikuluan aipatutako txostenak adin-muga berriusiko du, eta, beharrezkotzat hartuz gero, adin-muga hori aldatzeko proposamena ere egingo du.

5 bis artikulua aplikatzeak ekar ditzakeen ondorioak aintzat izanik, estatu kideek barnelegedian, 2009ko ekainaren 26a baino lehen onartutakoan, 12 urte baino gutxiagoko adin-muga ezarria badute, adin-muga hori aplikatu ahal izango dute lau urteko epealdi laburrean, 2009ko ekainaren 26az geroztik. Nolanahi ere, epealdi labur horretarako adin-muga ez da 6 urte baino gutxiagokoa izango.

b) Fisikoki hatz-markak hartzea ezinezkoa zaien pertsonak.

**2ter.** Arauen bidez erabakitako hatzen hatz-markak hartzea ezinezkoa bada denbora batez, estatu kideek baimena emango dute beste hatz batzuen hatz-markak hartzeko. Gainerako hatzen hatz-markak hartzea ere ezinezkoa bada denbora batez, 12 hilabeteko edo gutxiagoko balioa izango duen pasaportea egingo zaie”.

2) 1 bis artikulua hau gehituko da:

“1bis artikulua

1. Identifikatzaile biometrikoak langile kualifikatuek eta pasaporteak eta bidaia-agiriak egiteko estatu-takako agintari eskudunen behar bezalako baimena dutenek jasoko dituzte.

2. Estatu kideek eskaera egiten dutenen identifikatzaile biometrikoak jasoko dituzte, honako hauetan ezarritako babes-neurriak errespetatuz: Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batzuen Konbentzioan ezarritakoak. Estatu kideek neurriak hartuko dituzte identifikatzaile biometrikoak erregistratzea zaila izateagatik kaltetutako pertsonen

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

duintasuna ziurtatzeko, eta, berariaz, horretarako egokiak izango diren prozedurak aplikatuko direla bermatzeko.

3) 2. artikulua ordez ondoko testu hau jarriko da:

“2 artikulua

Erregelamendu honen 5. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako prozedura eta nazioarteko arauetan ezarritakoa betez, eta, bereziki Nazioarteko Abiazio Zibileko Erakundearen gomendioak betez, espezifikazio tekniko osagarriak ezarriko dira pasaporteentzat eta bidaia-agirientzat, hain zuzen, honako hauei buruzkoak:

a) segurtasun-neurri eta -baldintza osagarriak, agiri faltsu eta faltsifikatuak egin ez daitezen arau zorrotzagoak barne;

b) datu biometrikoak biltzeko gailuarentzako eta horien segurtasunerako espezifikazio teknikoak, bai eta baimenik gabe ikus daitezen eragozteko ere;

c) aurpegiaren irudiari eta hatz-markei buruzko baldintzak, kalitatea eta arau teknikoak berberak izan daitezen”.

4) 4. artikuluan, testu hau jarriko da, 3. paragrafoaren lekuan:

“3. Pasaporteak eta bidaia-agiriak biltzen diren tokian jaso eta gorde behar dira datu biometrikoak, agiri horiek egin ahal izateko. Erregelamendu honi dagokionez, pasaporte edo bidaia-agiriko datu biometrikoen segurtasunerako neurriak honako hauek egiaztatze soilik erabiliko dira:

a) pasaporte edo bidaia-agiria benetakoa den jakiteko;

b) titularra nor den jakiteko, zuzenean ikusteko moduko ezaugarri konparagarrien bidez, baldin eta legeak pasaporte edo bidaia-agiria erakustera behartzen badute.

Segurtasun-neurri osagarriak egiaztatzeaz gain, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko martxoaren 15ean emandako 562/2006/EE Erregelamenduaren 7. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa ere egiaztatuko da —Pertsonen mugak gurutzatzeari buruzko Erkidegoko Kodea (Schengen muga-kodea) ezartzen du erregelamendu horrek— []. Bat ez etortzeak ez dio eragingo pasaportearen edo bidaia-agiriaren balioari kanpo-mugak gurutzatu ahal izateko.

5) 5 bis artikulua hau gehituko da:

“5bis artikulua

Batzordeak, 2012ko ekainaren 26a baino lehen, txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, eskala handiko azterketa sakona egin ondoren. Agintaritza

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

independente batek eta Batzordearen ikuskaritzapean egingo du txostena. Bertan, 12 urte baino gutxiagoko haurrak identifikatzeko eta benetan horiek diren jakiteko haurren hatz-markak erabiltzea fidagarria den eta bideragarritasun teknikoa duten aztertuko dute; horretarako, erabiltzen diren sistemak zehatzak diren ebaluatuko dute. Horrez gain, estatu kideek egindako ukatze okerren indizeen alderaketa ere egingo du, eta, azterketaren emaitzak oinarri hartuta, alderatze-prozesuari buruzko arau komunaren premiari buruzko analisi bat. Beharrezkoa izanez gero, Batzordearen txostenarekin batera, erregelamendu hau egokitzeko proposamenak aurkeztuko dira.”.

6) Testu hau jarriko da 6. artikuluko bigarren paragrafoaren lekuan:

“Estatu kideek erregelamendu hau aplikatu dute:

a) aurpegiko irudiari dagokiona, 18 hilabete baino lehen;

b) hatz-markei dagokiena, 36 hilabete baino lehen,

2. artikuluan adierazitako espezifikazio tekniko osagarriak ezarri eta gero. Hala ere, ez dio eragingo eginda dauden pasaportearen eta bidaia-agiriaren balioari.

1. artikuluko 1. paragrafoaren bigarren lerrokada 2012. urteko ekainaren 26az geroztik aplikatuko da. Hala ere, agiriaren titularrarentzako, hasierako balioari ez dio eragingo.”.

2. artikulua

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera jarriko da indarrean erregelamendu hau.

Erregelamendu hau bete beharrezkoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean, Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren arabera.

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean,

Presidentea

J. Kohout

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

[1] Europako Parlamentuaren irizpena, 2009ko urtarrilaren 14koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko apirilaren 27koa.

[2] L 385 EO, 2004.12.29koa, 1. or.

[3] L 131 EO, 2000.6.1ekoa, 43. or.

[4] L 64 EO, 2002.3.7koa, 20. or.

[5] L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 36. or.

[6] L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 31. or.

[7] L 53 EO, 2008.2.27koa, 52. or.

[8] L 53 EO, 2008.2.27koa, 1. or.

[9] L 53 EO, 2008.2.27koa, 50. or.

[10] L 83 EO, 2008.3.26koa, 3. or.

[ ] L 105 EO, 2006.4.13koa, 1. or”.